



Harmailak beteta igoera eskuratu nahi dute

Euskaldunako lehen taldea denboraldi ikusgarria egiten ari da Erregional Preferente mailan. Larunbatean 17:45etan Ubitarten hasiko den partidan liga eta igoera eskuratu nahi dituzte / 13

ZATARAIN

euskara bada errenta

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

APIRILAREN
8TIK AURRERA
AUTOLIKIDAZIOA
ONARTZERAKOAN,
SAKATU EUSKARAREN
AUKERA



Informazio gehiago:
www.andoaindarraeuskaraz.eus
www.umieta.eus





Eraikuntzako lanbideei zuzenduriko formakuntza eskaintzen du Lasarte-Oriako EAGIk. KRONIKA

Lan mundurako sarbidea, eskualdean eta euskaraz

Ikas-prozesua euskalduntzeaz aparte, lan prestakuntza ere euskalduntzeko bidean, Lanbide Heziketako elkarteek eta erakunde publikoek egindako lanari esker, besteak beste. Hortaz, hurrengo ikasturtean ere, euskaraz ikasteko hamaika aukera izango da

PUBLI ERREPORTAJEA ESKUALDEA

"Lanbide Heziketa mundua enpresa munduarekin dago erabat erlazionatuta, eta enpresa mundua nahiko erdalduna izan da", onartzen du Ainitze Blancok, Hernaniko Lanbide Heziketako zuzendari eta Laneki Lanbide Heziketa indartu eta hobetzeko Elkarteko lehendakariak.

Errealitate hori aldatzeko sortu zuten, hain zuzen, Elkartea hura 2001. urtean, Ikaslan Gipuzkoa, Ikaslan Bizkaia, Ikaslan

Araba eta Hetel elkarten artean. "Lanbide heziketaren euskalduntzea" zuen helburu, eta horretan dihardute, besteak beste, Buruntzaldeako Udalen laguntzari esker.

Ikas materiala

Bide horretan, ikasmateriala euskaratzeari ekin zioten, izan ere, "arazoa zen, baita ere, material asko gaztelania hutsean zegoela, eta euskarazko eskolak ematerakoan, oztopatu egiten

zuen", dio Blancok. Horri esker, egun 24 arlo profesionalek 801 ikasmaterial daude euskaratuta www.jakinbai.eus web-orrian.

Horrekin batera, Lanbide Heziketako hiztegia ere jarri zuen martxan Laneki elkarteak 2010. urtean. 2017an hiztegi kolaboratibo bihurtu zuten, eta horri esker, dagoeneko 11.000 termino jasotzen ditu, hau ere, Lanbide Heziketa euskaraz ikastea errazteko.

Aurreneko oztopoan, beraz, laguntzen ari da Laneki elkarteak, baina bigarren pauso bat ere beharrezkoa da ikas-prozesu osoa euskalduntze aldera: "oso garrantzitsua da ikasle euskaldunei aukera ematea praktikak ere euskaraz egiteko". Ez bakarrik ikaslearentzat berarentzat: "era berean, gizartean nabaritu egiten da hori", onartzen du Hernaniko Lanbide Heziketako zuzendariak.

Horrek datuetan eragin zuzena dauka. Egun ikasleen %40ak euskaraz ikasten du Lanbide Heziketan, eta kopuru hori are altuagoa izateko, lanean ari dira eskualdeko Udalak.

Ikasketen alderdi praktikoa ere, datuak positiboak direla onartzen du Lanekiko lehendakariak: «Lantokiko Prestakuntza egiten duten ikasleen %62,74ak euskaraz egiten du, eta Duala egiten ari diren ikasleen %52,24ak egiten du euskaraz».

Prestakuntza horretan jarri du indarra azken urteotan Gipuzkoako Foru Aldundiak: «Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaritza nagusiak lantokietan prestakuntza aldiak euskaraz egiteko dirulaguntzak ematen dizkie hala eskatzen duten enpresei». Zehazki, 2018an, lurraldeko 90 enpresek jaso zuten laguntza, guztira, 72.000 euro. Baina ez da kopuru kontua bakarrik; "enpresak kontzientziatuagoak daude", dio Hernaniko Lanbide Heziketako zuzendariak.

Jaurilaritzaren bultzada

Lanekik materialarekin egiten duen lanaren, eta Aldundia prestakuntza euskalduntzeko egiten ari den indarrarekin bakarrik ez, Eusko Jaurilaritza ere «bultzada» ematen ari da ikas-prozesua euskaraz izateko, Ainitze Blancoren ustez. Baita eskualdeko Udalak ere, urtero animatzen baitituzte ikasleak euskaraz ikastera.

Horren islada da, hain zuzen, A eta D ereduen artean dagoen B+ ereduaren ezarpena: "honen arabera, talde bakarra dago euskaraz eta gaztelaniaz ikasle euskaldun eta erdaldunekin. Gai batzuetan bikoiztu egiten dira, eta orduan, euskaldunek dagoeneko bermatuta daukate gai batzuk euskaraz egitea". B ereduaren arazoetako bati aurre egitea da arrazoietako bat, gaztelaniaren presentzia gutxitzea; eta bide batez, "ikasleak animatzea D ereduaren izena ematen".

D eredua eskualdean

ANDOAIN

Leizaran Institutua

- Goi maila: gizarteratzea.
- leizaran.hezkuntza.net.
- 943 899 259.

La Salle-Berrozpe

- Goi maila: fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa.
- lasalleberrozpe.eus.
- 943 590 557.

HERNANI

- Erdi maila: mantentze-lan elektromekanikoa.
- Goi maila: sistema elektroteknikoak eta automatizatuak; fabrikazio mekanikoko diseinua; animazio soziokulturala eta turistikoa.
- hernanilh.hezkuntza.net.
- 943 551 958.

USURBIL

- Erdi maila: administrazio kudeaketa, instalazio elektriko eta automatikoak; mekanizazioa; hozteko eta girotzeko instalazioak; beroa sortzeko instalazioak.
- Goi maila: administrazioa eta finantzak; automatizazioa eta robotika industrialak; energia eraginkortasuna eta eguzkia-energia termikoa; fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa; instalazio termiko eta fluidoaren mantenimendua.
- lhusurbil.eus.
- 943 364 600.

Lasarte-Oria

EAGI

- Erdi maila: Eraikuntzako teknikaria eta Barruko obrak, dekorazioa eta birgaitzeko teknikaria.
- Goi maila: Eraikuntza-Obrak antolatze eta kontrolatzeko goi-mailako teknikaria.
- eagi.eus.
- 943 56 92 22.
- eagi@eagi.eus.

URNIETA

Salesiarrak

- urnietakosalesiarrak.com.
- 943 551 789.

Izan ere, Urnietako Salestar ikastetxearen iritziz, "DBH edo Batxilergoa euskaraz ikasi duen ikasle batek eskubidea dauka bere formakuntzarekin euskaraz jarraitzeko".

Ikastetxe berria, Lasarte-Orian

Euskaraz ikasteko aukera zabaltzea da helburua, beraz; eta horretan, aurrerapausoa ere egin dute Buruntzaldean. Aurretik zeuden ikastetxeei beste bat gehitu baitzitzaizen aurreko ikasturtean: EAGI Gipuzkoako Eraikuntza Eskola.

Hortaz, egun, bost ikastetxeetan ikasi daiteke Lanbide Heziketa D eta B ereduetan: Andoaingo Leizaran institutuan eta La Salle Berrozpe ikastetxean; Hernaniko Lanbide Heziketa institutuan; Usurbilgo Lanbide Eskolan; Ur-nietako Salestar ikastetxean; eta Lasarte-Oriako EAGIn.

Azkena eraikuntza formakuntza eskaintzen duen Gipuzkoako ikastetxe bakarra da. Erdi-mailako bi ziklo eta goi-mailako beste bat eskaintzen dituzte: "lan ikaragarria dago, eta oso ikasle gutxi", dio Lidia Alcerreca ikastetxeko zuzendariak.

"Honek balio izan dit, berriro ere, euskararen munduan murgiltzeko"

VERONICA SANCHEZ | KASLEA

Animazio Soziokulturala eta Turistikoa goi-mailako zikloko praktikak burutzen ari da Veronica Sanchez urnietarra bertako Magale ikastetxean Hernaniko Lanbide Heziketan Animazio Soziokulturala eta turistikoa goi-mailako zikloaren zati teorikoa osatuta, praktiketan dago egun Veronica Sanchez urnietarra, hain zuzen, bere herriko Magale Ikastetxean (Presentacion de Maria ikastetxea zena).

Gaztelania du ama hizkuntza, eta eskolan ikasi du euskara: "Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza euskaraz ikasi nituen, eta ondoren, Batxilergoa, gaztelaniaz. Honek balio izan dit, berriro ere, euskararen munduan murgiltzeko", azaltzen du ikasle urnietarrak, pozik.



KRONIKA

Izan ere, onartzen du: "nire ama hizkuntza gaztelania denez, asko kostatzen zait euskaraz hitz egitea, eta hitz egiten ez baduzu, joera galtzen duzu".

Hain zuzen, hori saihestea izan da Sanchezen helburua: "hizkuntza ez badugu galdu nahi Lanbide Heziketa euskaraz egitea aukera paregabean da». Baita lanerako ere: «hemen bizi eta lan egin nahi baduzu, beharrezkoa da".

**“Gurean ikasle gehiago balego,
denak lanarekin aterako lirateke”**

LIDIA ALCERRECA ZUZENDARIA

Aurreneko ikasturtea izan zuen EAGI ikastetxeak, Lasarte-Orian. Hiru ziklotatik D ereduak bakarra osatzea lortu dute ikasturte honetan, 25 urte altzan egin ondoren. Aurreko ikasturtean hasi zuen ibilbidea EAGI Gipuzkoako Eraikuntza Eskolak "Lanbideak hutsik zeukan eraikinean", azaldu du Lidia Alcerrecak ikastetxeko zuzendariak.

Eraikuntzaren bueltan zikloak eskaintzen dituen Gipuzkoako ikastetxe bakarra da. Hiru eskaintzen dituzte. Erdi-mailako bi: Eraikuntza teknikaria eta Barruko obrak, dekorazioa eta birgaitzeko teknikaria. Eta goi-mailako bat: obrak antolatzeko eta kontrolatzeko goi-mailako teknikaria. Nahiz eta D eredua eskaintzen duten, taldea ez da beti sortzen. Aurten, goi-



KRONIKA

mailako zikloa atera da D ereduan; eta erdi-mailakoak, aldiz, A ereduan. Dena den, "giro euskalduna» dagoela onartzen du: "irakasleen %95a euskalduna da".

Arazoa, ordea, beste bat da: "lan ikaragarria dago, eta ikasle gutxi. Gurean ikasle gehiago balego, denak lanarekin aterako lirateke". Eta horietako zenbaitetan, "euskara beharrezkoa da", dio Alcerrecak.

11 aukera,
Lan

LANBIDE HEZIKETA EUSKARAZ
AUKERATU Lanbide Heziketa EUSKARAZ

BILATU gustukoa duzun zikloa eta
HAUTATU EUSKARAZKO EREDUA!
Arlo guztietan izango dituzu aukerak:

- ADMINISTRazio ETA KUDEAKETA
- ELEKTRIZITATE ETA ELEKTRONIKA
- GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK
- FABRIKAZIO MEKANIKOA
- ENERGIA ETA URA
- INSTALAZIO ETA MANTENTZEA
- OSASUNGINTZA
- NEKAZARITZA
- ...


2019 / 2020

Buruntzaldean:

Informazio gehiago: www.ikaslan.net (ikasleak publikoak)
www.hetel.eus (ikasleak pribatuak)

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



Apustu etxe berria zabalik

Martxoaren 28az geroztik zabalik dago Andoaingo Zumea plazako apustu etxea. Eraikitzen ari zirela gaiak zeresana eman zuen, Udal batzarraldira iristeraino. Ireki eta gutxira negozio ereduaren aurkako afitxak agertu dira, joko aretoaren ondoan itsatsita.



POSTONTZIA

PSE-EE ANDOAIN

Ipar Haizearen gutun irekiari erantzuna

Aiurriko 'Postontzia' atalean aipamen zuzena egin zigutelako (Aiurri, 602. zenbakia, 2019ko martxoaren 29a), haxe adierazi nahi dugu:

- Guk dakigula, edukiontzien irekiera hainbat egunera mugatzeko erabakia ez da teknikoa, baizik eta politikoa. Lurrazpiko edukiontzia baztertzeko erabakia politikoa izan zen bezalaxe.
- Gezurra da hondakinen bilketarako sistema berriak edukiontzi gehien berritzea ekarri duenik. Adierazi beharko zenukete berrikuntza Mankomunitateak berak egin duen esleipenagatik izan dela.

- Alderdi sozialistak sekula ez du teknikoaren lana gaitzetsi, ez arlo horretakoa eta ez beste alorretakoa ere. Errespetuz jokatzeko eskatuko genizuke, iraindu gabe. Aurre kanpainan bagaude ere, denak ez du balio.

Sozialistok:

- Bat gatzoz edukiontzi eta poltsen banaketarekin, Andoaingo familia guztiek materia organikoa bereizteko aukera izan dezaten. Gure ustean, datu orokorren igoeraren arrazoiak hortxe dago. Eta ez edukiontzi grisa ixteko erabaki mugatzailean.
- Bat gatzoz edukiontzi grisa txartelaren bidez irekitzeko

erabakiarekin, modu horretan beste herrietako pertsonak Andoain zaborra botatzeko saihesteko.

- Ez dugu ulertzen zergatik Tolosan errefusaren erabilera egunerokoa izan daitekeen, eta Andoainen soilik astean lau alditan.
- Gure apustua: Edukiontzi grisa txartelarekin eguneroko ireki ahal izatea, eta ez soilik astean lau alditan.
- Informazioa zabaltzeko garaian zuzentziaz jokatzeko eskatuko genizuke. Etzazuela jendea nahastu datu edota baieztapen faltsuekin. Adeitasunez.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da.
Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbondo.
Maketatzaila: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Golea Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



ZIURTAGIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTAK

"Tabernaren irekierak bizitasuna eman dio auzoari"

YOLANDA ETA AIMAR MARTIN MURGUIA ANDOAINGO BELKOAIN TABERNA

Erredakzioa ANDOAIN

Aimar eta Yolanda anai-arrebak billabonatarrak dira. Urtearen hasiera aldera Bazkardo aldeko Mimendi kalean dagoen Belkoain tabernaren ardura hartu zuten. Aita Larramendi ikastolako haur hezkuntzari zuzendutako eraikinetik gertu dago, garai batean merkatalgune ugari zegoen kalean. Puba, harategia, denda..., horiek guztiak itxiz joan ziren eta auzoak garai bateko bizitasuna galdu zuen. Belkoain tabernaren irekierarekin, auzotarrek zerbitzueta bat berreskuratu dute. Taberna sozializatzeko guneetako baita, gure gizartean.

Aurkeztu ezazue zuen burua.

Yolanda eta Haimar gara, anai-arrebak. Biak elkarrekin murgildu gara ekimen berri honetan.

Aimar berria da negozio honetan, bi urteko esperientzia besterik ez baitu. Nire kasuan, askoz gehiago. Hamairu urte nituenetik ostalaritzan murgilduta izan naiz. Ondo ezagutzen dudan lan arloa da.

Lantalde gaztea, beraz, Belkoain taberna biziberritzeko.

Auzotarrek zer diote?

Bai, gogotsu gaude. Auzunean denbora askoan taberna itxita



Mimendi kalean dago taberna, Aita Larramendi ikastolako eraikinetik gertu. AIURRI

egon zen. Itxiera hori auzotarrek nabaritzen zuten, eta alde horretatik pozik nabaritzen ditugu.

Tabernaren irekierak bizitasuna ematen baitio auzoari.

Ikastolatik gertu, gainera.

"ANDOAINDARRAK GURE TABERNARA GERTURATU ETA EZAGUTZEKO GOGOZ GAUDE"

Gurasoak etorri ohi dira, bai. Eta ez dakienarentzat, jakin dezala gosariak eskaintzen ditugula.

Zer eskaintzen duzue?

Denetik. Pintxoak egunero, razioak eta bokatak. Gogotsu gaude, eta andoaindarrak gure tabernara gerturatu eta ezagutzeko desiatzen gaude.

Eta zuen ordutegia zein da?

Astelehenetan taberna itxita izango dugu. Gainerakoan, goizeko 09:00tan ireki ohi dugu, gaueko 22:30ak edo 23:00ak arte.

PROTAGONISTA

"Emaizta on horietan sakondu behar da"

JULEN BEGIRISTAIN IPAR HAIZEA ELKARTEA



Zumea plazan elkartu ziren Ipar Haizea elkarteak kideak, larunbat eguerdian. AIURRI

Ipar Haizea elkarteak taldeko argazkia egiteko deialdia luzatu zuen, edukiontzi grisaren ezarpenak emandako lehen datuak bultzatuta. Julen Begiristain elkarteak kideak ekimenaren azalpenak eskaini zizkien, bertaratu zirenei: "Andoainen errefusa biltzeko sistema berri dugu. Itxia da, eta astean gehienez ere lau alditan ireki daiteke. Azken berrien arabera, biltzeko sistema %44tik %63,2ra hazi da. Frogatuta geratu da, beraz, aldaketak emaitza hobeak eman dituela. Herritarrak argazki herrikoia ateratzera deitu ditugu, emaitza on horietan sakontze aldera". Ipar Haizeak antzeko ekimenak egin izan ditu Andoainen. 2016ko azaroan, esaterako, edukiontzi

organikoaren txertaketarekin ere taldeko argazkia atera zuen. Orduko hartan, hauxe izan zen zabaldu zuten mezuetakoa: "Herriar guztiak animatzen ditugu bosgarren edukiontzian materia organikoa banatzera. Eta halaber beste hondakinen bereizte prozesuan gogotsu jarraituz, gainerako edukiontziak behar den bezala erabiliz, ingurumenarekin errespetuz jokatzu eta guztion osasunarekin arduratsu izanez".

"FROGATUTA GERATU DA ERREFUSA BILTZEKO ALDAKETAK EMAITZA HOBEAK EMAN DITUELA"

Ataria, Zergabilketa eta hondakinen zerbitzuak lekualdatu egin dira udaletxeko obrak direla eta

Apirilaren 1etik aurrera, Ataria Herriarren Arreta Zerbitzua eta hondakinen inguruko informazio zerbitzua Ambrosia Olabideko eraikinaren sarreran egokitu dira (Jubilatuen tabernaren ondoan). Eta Zergabilketa zerbitzua, berriz, eraikin bereko hirugarren solairuan.





Basteron jendetza bildu zuen EH Bilduk, aretoa goraino betez. Argazkian, maiatzeko hautagaitza osoa. AIURRI

Hautagai sendoa

Azken bi agintalditan nagusi izan den EH Bildu alderdiak jendetzaren aurrean aurkeztu zuen Andoni Alvarez Lete hautagaia. Ekitaldi dinamikoan, hautagai guztiek txalo zaparrada bana jaso zuten. Basterokoa ikusita, Lete hautagai sendoa da

Amaia Senperena ANDOAIN

Ekitaldi dinamikoa eta parte hartzailea antolatu zuen EH Bilduk, zeinean hoge herritar ezberdinek maiatzaren 26ko hauteskundeetarako hautagai bakoitza aurkeztu zuen. Taula-gainetik, beraz, berrogei lagunetik gora igo ziren. Bi hitzaldi izan ziren, Ana Carrerena eta Andoni Alvarezena. Ana Carrerek agurra adierazi zuen, bere adierazpenean. Hobe esanda, beste bat arte modukoa izan zen. Ez baitu EH Bildu utziko, hori adierazi zuen. Beste toki batetik bada ere laguntza emateko konpromisoa agertu zuen.

Protagonista nagusia Andoni Alvarez izan zen. Hautes-zerrenda atzean zuela, herritarren aurreko adierazpena egin zuen. Esker ona adierazi zien militantei, alkate eta zinegotziei, ekitaldi hurbildu zirenen herritarrei eta bereziki hautes zerrendan lankide izango dituenen: “Oso eskertua nago urrats hau eman duzuelako, eta nirekin batera Andoain hobe baten alde lan egiteko aukera ematen didazue-

lako. Hautagaitza parekidea osatu da eta aurpegi berri ugariarekin”.

Programa apirilaren 10ean aurkeztuko dutela iragarri zuen bitartean, lehentasunezko lan ildoan aurrerapena egin zuen: Langabezia, enplegua, gazteria, feminismoa eta gizarte gaiei aipamen zehatzak egin zizkion.

Egitasmo zehatzak

Udal liburutegi berria, Allurralderen eraberritzea edota Emakumearen etxea izan ziren aurrera eraman nahi dituen egitasmo zehatzak: “Hori guztia EHBilduren markarekin. Parte hartzea eremu guztietara zabaltu nahi dugu. Jendearen iritzia jakin eta erabakietan inplikatu nahi dugu”. Musika saio txikiaren ostean, txalo artean eta

"ESKERTUTA NAGO ANDOAIN HOBE BATEN ALDE LAN EGITEKO AUKERA EMAN DIDAZUELAKO"

ikuslegoarekin ateratako talde argazkiarekin amaitu zen ekitaldia.

Ana Carreren adierazpena

Ekitaldiaren hasieran Ana Carrerek zortzi urteko balorazioa egin zuen, zailtasunak eta lorpenak zerrendatuz: “2011ko ekainean egoera kaotikoa topatu genuen. Ekaina zen, eta aurrekontuak ere egin gabe zeuden. Ezinezkoa zen kontu horiek orekatzea. Oztopo horiek gainditu ostean, inbertsio garrantzitsuak egitea lortu da. Eta horrekin batera lanerako giro polita sortu dugu Andoainen: Andoaindarrekin eta herriko elkarteekin garatu dugun elkarlana, gure gobernantza eredua zein den erakutsi dute”.

Pozik doala adierazi zuen. Egin dako inbertsioekin, esaterako: “Arrate frontoia, parkeak, ur hornidura sarea, kale argiteria, Joakin Larreta... baina baita beste gai garrantzitsu batzuk bideratuak utzi direlako ere: Etxeberrieta, Illarramendi eta Ama Kandidako proiektuen garapena adibidez”.

Andoaingo EH Bilduko hautagaitza

Ana Carrere azken bi agintaldietan alkate aritu denak itxiko du hautes zerrenda:

1. Andoni Alvarez.
2. Esti Mujika.
3. Jon Zulueta.
4. Garazi Usandizaga
5. Julian Lopez.
6. Maite Etxeberria.
7. Xabier Fondon.
8. Larraitx Arriola.
9. Estebe Lopez De Munain.
10. Alazne Uria.
11. Andoni Arribillaga.
12. Ixiar Ansa.
13. Antonio Calleja.
14. Domi Lucero.
15. Txomin Otaegi.
16. Atsegiñe Garcia.
17. Rogelio Miguez.
18. Ainhoa Zabala.
19. Josetxo Oartzun.
20. Ana Carrere.



Andoni Alvarez. AIURRI

Alkategaia: Andoni Alvarez

Hautagai politiko modura ibibide berria abiaraziko du, Andoaingo kirol eta herri mugimendu ezberdinetan urte luzez parte hartze handia izan eta gero.



Egungo alkateak taldea zuzentzeko lekukoa eman zion alkategai berriari. AIURRI

Ekitaldi parte hartzailea Basteron

Parte hartzea izan da EH Bilduren agintaldietako ikurretakoa. Joera hori martxoaren 29an egin zuten aurkezpen ekitaldian ere praktikara eraman zuten. Hogeiko zerrenda aurkeztu zuten, aurkezpen dinamikoa eta biziaren bitartez. Zerrendakide bakoitza taula gainera igo aurretik, haien gertuko, senide edo lagun batek egiten zuten aurkezpena. Banaka banaka aurkeztuz, hautagai bakoitzak txalo zaparrada handia jaso zuen.

Sinbolismo handikoa izan zen Ana Carreren eta Andoni Alvarezren kasuan. Atzekoz aurrerako hurrenkeran egin zuten, Joxean Barandiaranek ireki zuen aurkezpenen tartea. Alkate ohia izan zen Ana Carrere egungo alkate aurkeztu zuena. Eta era berean, Ana Carrere izan zen Andoni Alvarez aurkeztu zuena. Azken aurkezpen hori izan zen ekitaldiko une gorenetakoa.

Ostiralean zabalduko dute jolas parke berria

Ostiral goizean hasiko dira Doktor Huitziko parkeko itxiturak kentzen, eta arratsalderako jendaurrera zabalik egotea espero da. Haur eta nerabeen Agenda 21 prozesu parte hartzailean proposaturikoari bidea eman dio Andoaingo Udalak


Erredakzioa ANDOAIN

Auzotarrak eta herritarrak izango dira onuradun nagusiak. Eta baita Aita Larramendi ikastolako ikasleak ere. Aste Santuko oporraldiaren ostean Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako erakinean birmoldaketa handia egitekoak baitira. Lanek iraun bitartean, ikastolako instalakuntzak 16:30erako itxiko dituzte. Beraz, udaberria izanik, ikastolatik aterako diren haur eta guraso askorentzat Doktor Huitziko parkea arratsaldea igarotzeko alternatiba egokia izango da.

Tirolina, egurra, hondarra, mahaiak, eserlekuak... haur parke berritzailea izango da.



Doktor Huitziko haur parke berria. AIURRI



Ataria, zergabilketa eta hondakinen informazio gunea tokiz aldatu dituzte. AIURRI

Ataria arreta zerbitzua tokiz aldatu dute

Udaletxean igogailua eraikitzeko lanak direla eta, hiru Udal zerbitzu Ambrosia Olabide eraikinera eraman dituzte

Erredakzioa ANDOAIN

Ataria arreta zerbitzua, zergabilketa saila eta hondakinen inguruko informazio gunea Udaletxetik Ambrosia Olabide eraikinera eraman dituzte. Apirilaren 1ean egin zuten aldaketa,

hilabete batzuetan luzatuko dena. Zerbitzuak tokiz aldatzearen arrazoia Udaletxean eraiki behar duten igogailua da. Obrak egin ahal izateko, udaletxe barruko hiru espazio horiek hustu behar izan dituzte.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Astarbe 943 551 527	Astigarraga
Gaztañaga 943 591 968	Andoain
Larre-gain 943 555 846	Ereñozu-Hernani
Mizpiradi 943 593 954	Andoain
R. Zabala 943 690 774	Aduna
Sarasola 943 690 283	Asteasu
Sagardoa Route 943 336 811	Gipuzkoa
Hotel K10 943 337 357	Umieta
Amasa-Villabonako Udala 943 692 100	
Andoaingo Udala 943 300 830	
Urnietako Udala 943 008 000	



Egape dantza taldeko kideak San Juan plazan. AIURRI



Kalez kale ibili eta gero, Udal musika eskolako trikitilariak San Juan plazan amaitu zuten kalejira. AIURRI

Korrikaren etorrera girotzeko ospakizuna

"Klika" aurtengo kantuararen eta leloaren erritmora, Egape dantza taldeko kideek erakustaldi berria eskaini zuten. Korrika kulturala, horixe izan zen igandeko jaiaren goiburua: Dantza, musika eta, nola ez, gastronomia. Korrika eskualdera iristear da

Jon Ander Ubeda URNIETA

Udaberri hasierako igande eguzkitsua zen. San Juan plazan Idiazabal kaletik zetozen trikiti doinua entzun zitekeen. Belarrietatik entzuten zena begiekin

ikusitua, San Miguel elizaren paretik berehala agertu ziren Lurdes Iriondo Udal musika eskolako trikitilariak eta panderojoleak. Plazan azken doinua jo, eta antolatzaileen esanetara

geratu ziren. Eguerdiko hamabietako kanpaikadak jo eta gutxira, Egape dantza taldekoek "Klika" aurtengo kantuararen gaineko koreografia aurkeztu zuten. Bi taldetan banatuta,

dantzaren bitartez elkarrizketa modukoa irudikatu zuten. Euskaral dantza zatiak eta mugimendu berritzaileak uztartzen maisu dira urnietarrak. Beste behin ere, erakustaldi aparta eskaini zuten. Egape DT taldeko kideek plazara hurbildutakoen txalo zaparrada jaso zuten.

Saioa amaituta, pintxoez eta sagardoaz gozatzeko aukera izan zen. Bien bitartean, ondoko postuan, Korrikako materiala erosteko edo Korrika Laguntzailea egiteko aukera zegoen.

Apirilaren 4an abiatuko da Nafarroako Gares herritik, apirilaren 14an Gasteizen amaitzeko. Azken txanpa, beraz, Urnietan barrena egingo dute.

URNIETA

OSTIRALA 5

19:00 Korrika postua ipiniko dute Zubitxo plazan.

OSTIRALA 12

11:30 Korrika txikia eta ekitaldia.

19:00 Kantujira kalez kale.

21:00 Afaria Oianumen, bertso eskolako enptaidetarekin.

02:03 Korrika Urnietara iritsiko da.

"Urnietako erakunde eta elkartearen babesa dugu"

NEREA ZUBIMENDI AEK EUSKALTEGIKO IRAKASLEA ETA URNIETAKO KORRIKA BATZORDEKO ARDURADUNA

Korrika batzordeko kidea zara, Nerea. Urnietar batzuk, ordea, lehendik ezagutzen zaituzte AEK euskaltegian irakaslea zarelako.

Halaxe da, bai. Aurtun hasi naiz Urnietan eta, egia esan, oso gustura nago. Korrikako ardura hartu dut, bestalde.

Zer moduzko ikasle taldea duzu?

Oso ona, ikasturtea oso ondo doa. Urnietara bizitzera etorritakoak dira guztiak, eta euren artean elkartasun handia sortu da. Oso talde polita sortu da, eta ikasketa prozesuan oso erritmo onean doaz.

Hori zuretzat bereziki motibagarria izango da, ezta?

Bai, oso pozik nago. Erosten sentitzen naizen ikasle taldea dela esan diezazuket.



AIURRI

Horrexegatik, oso gustura hurbiltzen naiz Urnietako AEK euskaltegia.

Zuri eskolak ematea motibagarria zaizun bezalaxe, ikasleei Korrikan parte hartzeak antzeko motibazioa piztuko al die?

Korrika zer den azaltzen ahalegindu gara. Parte hartu nahi dutela antzematen dut, eta hori ere pozgarria da.

San Juan plazan kultur ekitaldia antolatu duzue, musika eta dantza saioekin.

Egape dantza taldekoek aurreko edizioan dantzaren inguruko koreografia ikusgarria egin zuten, eta aurtun ere antzekoa egitea eskatu diegu.

Zure kasuan, lana biderkatu egingo al zaizu egun hauetan?

Apirilaren 12tik 13rako gauean pasako da Urnietan barrena, Andoaino norabidean. Goizaldeko ordu txikietan igaroko denez, ostiral goizean Korrika Txikia antolatuko dugu. Herriko ikastetxeetako ikasleek parte hartu ahal izango dute Korrika Txikian. Arratsaldean kantu kalejira egingo dugu, eta gauean herri afaria. Goizalderarako, Korrika Urnietara iristen denerako, prest izango gara.

Ardura, erantzukizuna..., zer da zure baitan egun hauetan nagusitzen ari dena?

Zerorrek aipatutakoaz gain, ilusio handia. Oso polita izango da eta sentimendu hori besteen gainetik dago.

Jasotzen ari al zarete urnietarren babesa?

Bai, Urnietako erakunde eta elkarte ezberdinek bat egin izan dute Korrikarekin. Aurtengo edizioa ez da ezberdina izango, eta datozen egunetan euskaltzale askoren babesa jasoko dugu.



2015eko Korrika Txikia Urnietan, San Juan plaza inguruan. AIURRI



Goikoplaza aldean ibili zen Korrika Txikia Andoainen, 2015eko edizioan. AIURRI

Korrika txikia bi herrietan

Aurtengoan, Andoaindik eta Urnietatik barrena, Korrika gaueko ordu txikietan igaroko da. Hori dela eta bi herrietako Korrika batzordeek haur eta gaztetxoei Korrika Txikian parte hartzeko aukera eskaini diete, denek ere Korrikarekin bat egin dezaten

Erredakzioa ANDOAIN

Aste Santuko oporraldiaren aurreko azken eguna berezia izango da ikasleentzat. Korrika txikia saio bana antolatu dute Andoainen eta Urnietan, hurrek eta gaztetxoek ere euskararen alde egin dezaten. Egunean zehar hitzordu gehiago izango dira.

ANDOAIN

OSTIRALA 12

11:30 Korrika txikia eta ekitaldia.

19:00 Kantujira kalez kale.

Web Irudiak Bideoak

2019.3.21

TOKIKOM

www.aiurri.eus



Albisteak: Udal hauteskundeak

Bideoak: Hurria Sahara

Atalak: Korrika

Agenda: Asteburuko hitzorduak

Webgune berria udaberria iristearekin batera

Pazko Asteko aisialdi jardueren eskaintza zabala aurkeztu dute

Haur eta gaztetxoei zuzenduta dago, eta izena eman daiteke apirilaren 5a bitarte

Erredakzioa URNIETA

Ludotekak herriko haurrei eskaintza zabala aurkeztu die, Pazko Asteko oporraldiari begira, Izen-ematea zabalik dago, datorren apirilaren 5a bitarte. Bertan, Lekaio edo Ludotekan eman daiteke izena. Baita, Urnieta.eus webgunean ere. Hauxe da egitaraua:

Apirilak 23, asteartea

11:00-13:00 Madscience zientzia tailerra Lekaio kultur etxean (2013-2008 urteetan jaiotakoentzat).

Apirilak 24, asteazkena

11:00-13:00 Sukaldaritza tailerra Denda Berrin (2013-2011).

Apirilak 25, osteguna

11:00-13:00 Sukaldaritza tailerra Denda Berrin (2010-2008).

Apirilak 26, ostirala

09:15-13:00 Bistaldia Albaolara. Irteera San Juan plazatik (2013-2008).

17:00-19:00 Tiritirantes zirko tailerra San Juan plazan (euriarekin Egape ikastolako jolastoki estalian).



AIURRI

Trikitilarien emanaldia Lekaion

Lourdes Iriondo musika eskolako trikiti eta pandero ikasleek emanaldia eskainiko dute, ostiral honetan. Arratsaldeko 17:30ean hasiko da, eta sarrea doakoa da. Lehenxeago, asteazkenean, beste musika emanaldi bat antolatuta zuten Lekaion. Saxofoi, klarinete, bonbardino eta musika hizkuntzako ikasleena, hain zuzen.

Ur edangarriaren sarea kudeatuko du Añarbek

Ergoien industriguneko saneamendu lanak amaitzen direnean, Urnietako Udalak Añarbeko Urak Mankomunitatearen esku utziko du Urnietako ur azpiegitura sarearen kudeaketa osoa. Iragarpena, iaz sinatutako lankidetza hitzarmenaren jarraipena da

Erredakzioa URNIETA

Orain arte Añarberen ardurapean zeuden Armunttoko eta Oiama-rreko ur edangarriaren biltegiak. Aurrerantzean, Goiburu eta Goi-koetxe azpiegituren ardura ere mankomunitateari esleituiko zaio. Urnietako Udalak berriki aditze-ra eman duen albistea 2018ko martxoan du sorburua. Orduko hartan lankidetza hitzarmena sinatu zuten bi erakundeek, hots, Mankomunitateak eta Udalak. Orduko hartan albiste nagusia Lekun errekararen doazen ur zikin-berbideratzea izan zen. Obra zaila eta kostu handikoa zen, milioi bat eurokoa. Mankomunitateak obra osoaren %83a bere gain hartu zuen. Iazko agerraldi hartan obraren xehetasunak eskaini zituzten: "Ergoien industriguneko ur zikinak Lekun errekararen doaz, eta helburua ur zikin horiek Donostiako Loiolan dagoen araztegitara bideratzea da. Egitasmo hori potolo samarra da, Ergoien industrigunetik Erratzu aldera igaro behar baitira ur zikinak, eta tartean errepidea dago. Hori dela eta, lan horien kostua handi samarra izango da". Mikel Pagola alkateak poza eta eskertza adierazi zituen agerraldi hartan: "Ergoien aspaldikoa zen arazoari irtenbidea emango zaiolako. Obra konplexua



Añarbeko Urak Mankomunitatearen eraikin nagusia. AÑARBE

da, obra zaila, Iparlaten dugun lotunearekin bat egin behar delako".

Azpiegiturak berritzeko arduraz hartzean gain, aurrerantzean Añarbeko Urak Mankomunitateak bere gain hartuko du ur zerbitzuaren kudeaketa osoa.

LEKUN ERREKARA DOAZEN UR ZIKINAK DONOSTIAKO LOIOLA AUZOKO ARAZTEGIRA BIDERATUKO DITUZTE

Eskualdeko garapena

Beterri-Buruntzako tokiko garapen ekonomiko eta sozialeko mankomunitatearen sorreran parte hartzeko erabakia hartu du Udalak, joan zen asteko ez ohiko plenoan hala erabakita. Proposamenak hiru alderdien oniritzia jaso du.

Asfaltatze lanak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik, Xoxoka aldera doan errepidea asfaltatzen ari dira egun hauetan. Urnietako Udalak gidariei arretaz ibiltzeko deia luzatu die: "Lanak burutuko dituzten egunetan behin-behineko etenaldi batzuk egon daitezke trafikoan". Badaezpada, kontuz ibiltzea gomendagarria da.



UDALA





Bertsolariak Euskal Herrian bizi diren Saharako hainbat herrikiderekin batera. AIURRI

Sahararen aldeko elkartasunezko saioa

Maialen Lujanbio, Agin Laburu, Unai Agirre, Alaia Martin, Aitor Mendiluze eta Ion Beloki bertsolariek saio polita osatu zuten Basteron, joan zen igandean. Bastero bete egin zen, eta bertara Euskal Herrian bizi diren makina bat saharauiar hurbildu ziren

Xabier Lasa ANDOAIN

Unai Ormaetxea gai jartzaillearen esanetara jarrita, egoera ezberdinei egin behar izan zien aurre seikoteak.

GAIA: SAHARAKO HAURRAK

Saharatik kanpo, nolako oporraldia imajinatzen duzue?

Maialen Lujanbio:

Amak esan dit arnastu batek egiten dula mesede. Medikutara bixitek ere aztertu nazaten xehe, beste herri, haur eta familitan ibili nadila trebe. Nik itsasoa ikusi nahi det geurea ez bada ere.

Alaia Martin:

Itsasoa parez-pare handi omen eskaparatzen. Haurrak jolasten egongo dira euren etxeko atean. Kapritxo bat dut handi-handia behin haraino joatean: gaua lotan pasa nahi nuke belardi heze batean.

Aitor Mendiluze:

Nik amesten det oporraldi bat beti izan behar zena. Inork mehatxuz ez galdetzea zein dedan nire izena. Zer litzateke ere desira, zer oporraldi zuzena. Oporraldi bat kezkarik gabe oheratuko naizena.

Unai Agirre:

Anai zarraren argazki batzuk nik ikusi nituen, ai! Zoru berdean zilipurdika edota ur freskotan blai. Orain amari begiratzean ez naiz esplikatzeke gai. Ilusioa badaukat baina, kezka pixka bat ere bai.

Agin Laburu:

Nik ere hala ezagutzen det ikusi dedan apurra. Ezezagunak ikaratzten du heldua gisa haurra. Unai eta biok lagunak gera ta hori ez da gezurra. Nik ere daukat ilusioa nik ere badet beldurra.

Ion Beloki:

Lengo amets bat egingo nuen nik Sahara zela tarteko. Ta espero det hango uda dela hemen baino hobeto. Baloi bat nahi det hanka tartean kolpetik aberasteko, etxera itzuli eta amari ahora zerbait emateko.

GAIA: BERTSO ESKOLA

Agin, bertso eskolako irakaslea zara. Ion, urte pare bat igarota, zure alabak ez du bertso bat osatzen. Kontu eske joan zara.

Ion Beloki:

Nere alabarekin banun esperantza, baino alde batera dijoa balantza, eta egunero sortzen zait neri, Agin, zalentza. Gero eta gehio dauka bere aitaren antza (bis).

Agin Laburu:

Ta alabak dik hire kezka bera,



Aitor Mendiluze eta Ion Beloki andoaindarrak. AIURRI

Bi andoaindar bertsotan

Aspaldian ez bezala, taula gainean Andoaingo bi bertsolari kantuan aritu ziren: Aitor Mendiluze eta Ion Beloki. Mendiluzek urtero-urtero bat egiten du Hurria-Sahara taldearen ekimenarekin. Aurtengoan Ion Beloki izan zuen bertsokide, udaberrian Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehen kanporaketetan parte hartzeko delako. Basterokoa jendaurrean trebatzen hasteko aukera aparta izan zen. Orain arte, Sahararen aldeko bertso saioan, gai-jartzaile lanetan aritu izan da Beloki. Aurten zeregin horretan Unai Ormaetxea aritu zen, txukun aritu gainera.

Ion Belokirentzat jauzi bat izan zen, formatu txikiagoetara ohituta baitago. Igandean indarrak maila handiko bertsolariekin neurtu behar izan zituen. Saioa amaituta, egindako lanarekin gustura zegoela aitortu zuen. Saio txukuna egitea zen bere helburua.

nahizta eniñun ausartzen hola esatera. Ezagutzen dek noski hik esakera: astotikan zaldirik ezin dek atera (bis).

Ion Beloki:

Igual pixka-pixka bat ikasten ari da, baina ezin dik atera plazaren erdira. Noizbait in dezan berak bertsotan distira eraman beharko dek sagardotegira (bis).

Agin Laburu:

Behin hala esan zidan neri Ion Belokik: bertsotan egiten du zenbait lagun egokik, eta hire alabak nahikoa egiten dik, Andoainen ez zakak konpetentziarik (bis)

Ion Beloki:

Oraintxe jarri haiz hi arroxka planean, neri orain ari haiz hi egur batean. Konpetentziarik batez

Andoain aldean, ezta Jokin ta Aitor hemen zeundenean (bis).

Agin Laburu:

Haiek hemen zirala horrenbeste urte. Geroztik ze eguzki eta ze elurte. Nora helduko ziran jakin behar genduke horrelako maixu bat izango balute (bis)

Ion Beloki:

Loreak botatzeko hi hago hobeto. Baina gaia hori zen alaba tarteko. Urte bete badaukak hari erakusteko ta datorren urtean ni ordezkatzeko (bis).

Agin Laburu:

Eztabaidak hartu dik biderik mihiena, helmuga iristera uzten ez diena. Ta helburu bera dek hi eta biena. Ondo pasatzia dek inportantiena (bis).

Arrate pilotalekuko instalakuntza guztiak prest

KIROLA Apirilaren 8an zabalduko dituzte Arrate pilotalekuko instalakuntza guztien ateak

Erredakzioa ANDOAIN

Hainbat hilabetetan eraberritze lanetan jardun ostean, datorren astelehenetik aurrera instalakuntza guztiak erabilgarri izango direla jakinarazi du Udalak.

Gaikaldean frontoi luzea eraberritu dute ezker pareta txukunduz, lurra aldatuz eta iris-

garritasun eta emergentzia araudiak betetzeko neurriak hartuz.

Behekaldean bi tatami jarri dituzte, pilotaleku txikia, gimnasioa (boulderra, indarra lanezko makina eta elementuak), txirrindularitzarako gela, bilera gela, lau aldagela eta komunak.

KARTELDEGIA: ESKUBALOIA

ESKUBALOIA	
SENIOR MAILA	
GIPUZKOA 1. MAILA	
Donibane-Urnieta	24-30
SAILKAPENA	
1 Munttarpe	34 puntu
2 Legazpi	28 puntu
3 Urnieta	27 puntu
4 Bergara Soraluze	25 puntu
5 Eibar	24 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
11:30 Urnieta-Soraluze Bergara / Ig, 7	
SENIOR MAILA, NESKAK	
Munttarpe-Leizaran	20-25
SAILKAPENA	
1 Usurbil	8 puntu
3 Leizaran eskubaloia	3 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
18:00 Usurbil-Leizaran / Lar, 6	
KADETE MAILA, NESKAK	
Berango-Urnieta	31-29
SAILKAPENA	
1 Aiala	16 puntu
5 Urnieta	4 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
10:45 Urnieta-Errotaberi / Lar, 6	

JUBENIL MAILA	
GAZTE TXAPELKETA	
Urola-Urnieta	30-32
SAILKAPENA	
1 Arrasate	12 puntu
2 Urnieta	10 puntu
ASTEBURUKO PARTIDAK	
10:00 Urnieta-Arrasate / Ig, 7	
JUBENIL MAILA, NESKAK	
UDABERRI TORNEOA	
Elgoibar-Urnieta	22-14
Leizaran-Bergara	30-18
SAILKAPENA	
1 Leizaran	13 puntu
3 Urnieta	8 puntu
ASTEBURUKO PARTIDAK	
19:00 Urnieta-Bergara / Lar, 6	
KADETE MAILA	
GIPUZKOA TROFEOA	
Amenabar C-Urnieta	33-32
UDABERRI TORNEOA	
10:30 Leizaran-Usurbil / Ig, 7	
KADETE MAILA, NESKAK	
GIPUZKOA TROFEOA	
16:00 Pulpo-Leizaran / Lar, 6	



Urnieta eskubaloiko mutilak denboraldi ona burutzen ari dira, denboraldi osoan sailkapeneko lehen postuetan. AIURRI

Igoera fasean sartu dira

ESKUBALOIA Urnieta lehen taldea 2. Nazional mailan jokatu ahal izateko ligaxkan arituko da. Apirilaren 20tik aurrera, beraz, zailtasun eta emozio handiko partidak itzuliko dira Urnieta kiroldegira. Jokalarientzat eta zaletuentzat une zirraragarriak iristear dira

Andoni Urbistondo URNIETA

Donibane taldea 24-30 irabazi eta gero, eskubaloiko Gipuzkoa-ko 1. Lurraldeko txapelketan ari den taldeak igoera fasean lehiatzeko txartela eskuratu du.

Txartel hori azken aurreko jardunaldian lortu zuen. Beraz, asteburuan Urnietan bertan jokatu den azken jardunaldia ospakizun modukoa izango da. Eta baita taldeari esker ona adierazteko unea ere. Partida horren ostean, apirilaren 20tik aurrera, igoera fasea iritsiko da.

Urnietarrak Pasaian lortutako garaipen horri esker, sailkapeneko 3. postuan sendotu dira. Gipuzkoatik lau talde sailkatzen dira igoera fasera, eta Haritza Eibarrek galdu egin zuenez, jardunaldi bakarraren faltan urnietarrendik 3 puntura daude. Gogoan izan behar da eskubaloian garaipenak 2 puntu ematen dizkiola garaileari.

Urnietarrek Bergararen aurka jokatu dute azken partida, igande eguerdian. Bergarak lau garren postua du jokoan, UKEK

bigarrena, Legazpi puntu baka-rrera baitu.

Igoerako ligaxkaren sistema

UKeren sailkapena liga amaieran bat edo bestea izan, horrek ez du eraginik izango. Ligaxka-ko garaileak zuzenean lortuko du 2. Nazional Mailan aritzeko txartela. 2. eta 5. sailkatuen artean halako Lauko Finala jokatuko da: 2.a 5.aren aurka, eta 3.a, 4.aren aurka. Lauko Final horretako garailea ere 2. Nazional Mailan ariko da.

Kadeteak Seguran

TXIRRINDULARITZA Seguran lehia ibili eta gero, apirilaren 6an eta 7an Ataunen eta Zestoan arituko dira.

Sailkapena:

- 1 Mikel Uncilla (Quesos Albeniz)
- 29 Peru Alkain (Andoingo)
- 35 Unai Galarza (Andoingo)
- 45 Mikel Goikoetxea (Andoingo)
- 46 Iker Atxaga (Andoingo)
- 62 Ibai Omeñaka (Andoingo)



MARTINEARLY





Andoaingo Txirrindulari Eskolako kadeteak. ANDOAINGO

Liga eta igoera lortzeko garaipen bakarrera daude

FUTBOLA Liga amaitzeko 4 partidatan 12 puntu daude jokoan, eta Euskaldunak 10 puntuko abantaila dauka

Erredakzioa ANDOAIN

Tenisean 'match ball' deitzen zaio partida irabazteko joko erabakiorrari. Egoera horretara iritsi da Euskaldunako lehen taldea, 27. jardunaldira. 4 partida daude jokoan, 12 puntu denera. Eta bigarren sailkatuari ateratzen dioten abantaila 10

puntukoa da. Larunbatean Ubi-tarten garaipena lortuta, igoera eta liga eurena lirateke.

Azken lau jardunaldiak:

27.	Euskalduna-Gure Txokoa / Api, 6
28.	Touring-Euskalduna / Api, 13
29.	Euskalduna-Baskonia / Mai, 5
30.	Ostadar-Euskalduna / Mai, 12

Larunbatean 17:45tan Ubitarten

Euskalduna taldeak lehen "match ball"ean lortu nahi du igoera. Garaipenaren bidean, klubak bat egin nahi du herritarrekin. Eta hori dela eta webgunearen bidez deialdi zehatza egin dute: "Datorren larunbatean 17:45tan Gure Txokoa taldea izango dugu bisitari Ubitarten, eta garaipen batek lehen postua eskuratzea eta ondorioz igoera ahalbidetuko lituzke. Zalego urdinari eskatu nahi diogu etor dadila zelaira taldea animatzera eta garaipena lortuz gero, igoeraren festara gonbidaturik izango dira. Aupa Euskalduna!!". Andoindarrek Nafarroako Bera herriko Gure Txokoa taldearen aurka jokatu dute. 11. postuan sailkatuta daude, 26 punturekin. Joaneko partidari Euskaldunak garaipen erraza lortu zuen (1-5).

Andoain-Andoain Ibilaldi neurtua, apirilaren 14an

MENDIZALETASUNA Euskaldunak ibilaldi neurtua iragarri du:

- Luzea: Andoain, Belkoain, Atxulondo, Oria, Azkorte, kraft, Marizulo, Adarra, Bertxin, kanalak, Goiburu eta Andoain (42 Km).
- Motza: Andoain, Belkoain Atxulondo, Oria, Azkorte, Kraft eta Andoain (22 Km).
- Familiarra: Andoain, Axukalte, Uban, Baltzun, Marizulo, Pardaki eta Andoain (13 Km).

Izen ematea: zirkuitua.com.

Keler taldea abantaila hartzen ari da Andoaingo txapelketan

EMAITZAK	
Lanbroa Taberna-Academia GF	2-2
Ekhia-Irunberri	2-4
Brikogoros-Batzokia	9-3
DAD Kutxa-Carpinteria Antonio	2-2
Aker Beltz Taberna-Brew & Roll	10-1
Ganbara bi-La Almazara	4-2

SAILKAPENA	
1 Keler	27
2 C.Antonio	23
3 D.A.D. Kutxa	22

Saskibaloi taldeen bi partida asteburuan, Allurralden

EMAITZAK	
BKL-Ganbara Junior	73-31
Ganbara Kad-BKL	35-36
Mundarro-Ganbara Inf H.	37-35
AMA-Ganbara Inf T.	51-26

ASTEBURUKO PARTIDAK	
09:00 Ganbara Junior-Añorga / Lar, 6	
09:15 Ganbara Inf Handi-Ordizia / Ig, 7	

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ARETO FUTBOLA

FUTBOLA	
PREFERENTE MAILA	
EMAITZA	
Dunboa-Euskalduna	2-3
Baskonia-Urnieta	3-2
SAILKAPENA	
1 Euskalduna	68 puntu
2 Touring	58 puntu
13 Urnieta	25 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK	
17:45 Euskalduna-Gure Txokoa / Lar, 6	
18:00 Urnieta-Ostadar / Lar, 6	

ERREGIONAL MAILA	
KOPA	
SAILKAPENA	
1 Ostadar	9 puntu
2 Euskalduna	7 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK	
19:45 Euskalduna-Ostadar / Lar, 6	

GORENGO MAILA, NESKAK	
IGOERA FASEA	
EMAITZA	
Aloña Mendi-Urnieta	0-0
SAILKAPENA	
1 Intxaurdi	21 puntu
2 Urnieta	16 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA	
17:30 Hondarribia-Urnieta / Ig, 7	
KOPA	

EMAITZA	
Euskalduna-Trintxerpe	7-0
SAILKAPENA	
1 S.Tomas	15 puntu
2 Euskalduna	13 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA	
16:00 Intxurre-Euskalduna / Ig, 7	

JUBENIL MAILA	
OHOREZKOA	
Ilintxa-Euskalduna	5-3

SAILKAPENA	
1 Mondragon	53 puntu
13 Euskalduna	33 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA	
15:30 Euskalduna-Urki / Lar, 6	
KOPA	
Euskalduna-Baskonia	2-3
SAILKAPENA	
1 Usurbil	19 puntu
5 Urnieta	14 puntu
7 Euskalduna	2 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK	
15:30 Urnieta-Euskalduna / Lar, 30	

KADETE MAILA, OHOREZKOA	
EMAITZA	
Martutene-Euskalduna	2-1
ASTEBURUKO PARTIDA	
16:00 Euskalduna-Danena / Lar, 6	

KADETE MAILA, NESKAK	
KOPA	
Euskalduna-Mundarro	0-1
Amara Berri-Urnieta	4-1
SAILKAPENA	
1 Mundarro	22 puntu
3 Euskalduna	13 puntu
8 Urnieta	3 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK	
15:00 Danena-Euskalduna / Lar, 6	
12:15 Urnieta-Luberri / Lar, 6	

KADETE MAILA, MUTILAK	
KOPA, 5. MULTZOA.	
10:30 Urnieta A-Lengokoak B / Lar, 6	
KOPA, 7. MULTZOA.	
Urnieta B-Euskalduna	6-0

ASTEBURUKO PARTIDAK	
12:30 Euskalduna-Ostadar / Lar, 6	
12:30 Zarautz B-Urnieta B / Lar, 6	

ARETO FUTBOLA	
EMAITZA	
Samaniego-Euskalduna	2-4
SAILKAPENA	
1 Samaniego	54 puntu
2 Euskalduna	52 puntu
3 Jaixki	51 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA	
20:30 Legorreta-Euskalduna / Ost, 5	

Txapelketa Ontza elkartean

MUS TXAPELKETA

Joan zen ostiralean Joxemari Erkizia 46. memoriala jokatu zen, Ontzan. Hogeik bikote aurkeztu ziren: 1. Javier Baltasar-Aritz Escudero. 2. Alfredo-Jumi. 3. Joxan-Pablo. 4. Joxi-Jokin. Joxe Manuel Erkizia omendu zuten, 95 urterekin txapelketan parte hartu zuelako. Gau atsegina izan zen.



Ontza elkarteko mus txapelketako finalistak, taldeko argazkian. Javier Baltasar eta Aritz Eskudero izan ziren irabazleak.



Joxe Manuel Erkizia omendu zuten. Argazkian Gabino Agudorekin.



Zalakain-Bailon anaiak izan ziren mus azkarrean onenak.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 4

ANDOAIN Korrika

Peto potea antolatuko dute, Bastero plazatik Zumea plazara. Bidean geldialdiak egingo dituzte. Kalejiraren amaieran petoak banatuko zaizkie lekukoa eramango dutenei.
18:30, Bastero plazatik abiatuta.

ANDOAIN Hitzaldia

Arantza Tapia Ekonomiaren eta garapen eta azpiegitura Sailburuaren hitzaldia Basteron, Andoaingo EAJ-PNV alderdiak antolatuta.
19:00, Bastero.

OSTIRALA 5

URNIETA Aisialdia

Pazko Asteko jardueretan izena emateko azken eguna. Informazio gehiago 11. orrialdean.
Bertan, Lekaio, Urnieta.eus.

URNIETA Musika

Lourdes Iriondo musika eskolako trikiti eta pandero ikasleen emanaldia.
17:30, Lekaio.

URNIETA Korrika

Korrikako postua ipiniko dute informazioa zabaltzeko.
19:00, Zubitxo plaza.

ANDOAIN Dantza

Urkik "Udaberriko emanaldia" eskainiko du. Euskal Herriko beste txokoetako dantzak taularatuko ditu.
20:00, Bastero.

LARUNBATA 6

ANDOAIN Musika

Andoaingo udal musika eskolako bandak Deba eta Legazpiko bandak gonbidatu ditu.
12:30, Bastero.

URNIETA Antzerkia

"Los intocables" antzezlan, Ados teatroen eskutik.
19:00, Sarobe. 19:00. 5 euro.

ANDOAIN Musika

Ene Bada! Aiama eta Aneguria musikariaren egitasmoa da.
22:30, Gaztetxea.



Teatro del Barrio Madrilgo konpainiak ekoiztu du lana. TEATRODELBARRIO

ANDOAIN Ez ohiko filma ez ohiko egunean

Zuzendaria: Alberto San Juan, Valentín Álvarez. **Herr.:** Espainia (2018). **Gidoia:** Alberto San Juan. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Aktoreak:** Luis Bermejo, Alberto San Juan eta Guillermo Toledo. **Iraupena:** 84 minutu. **Sinopsia:** Antzezlan zinemara eramanda: Juan Carlos I erregearen ingurukoa.
20:00. Apirilak 10, asteazkena. 4 euro.

IGANDEA 7

ANDOAIN Korrika

Herri afaria antolatu dute Basteron. Txartelak euskaltegian eta Ernaitzan salgai daude, 15 euroko prezioan.
Izena emateko azken eguna.

ANDOAIN Dantza

"Nudos", Da-te danza konpainiaren ikuskizunak bizitzan izandako esperientziek uzten dituzten ondorioak azaleraziko ditu. Dantzaren eta hiru dantzariren interpretazioaren bidez.
17:00, Bastero. 4 euro.

OSTIRALA 12

URNIETA Lehiaketa

Antia literatur lehiaketan parte hartzeko azken eguna. Haur, gazte eta helduen mailako lehiaketa da. Sari potoloak banatuko dituzte. Oinarriak Urnieta.eus gunean ikusgai daude.
Lanen aurkezpena: Lekaio.

URNIETA Korrika

Korrika Txikia eta Korrika, jarraian. 11:30 Korrika txikia eta ekitaldia. 19:00 Kantujira kalez kale.

21:00 Afaria Oianumen. 02:03 Korrika Urnietara iritsiko da. **Egun osoan zehar.**

ANDOAIN Korrika

Korrika Txikia eta Korrika, jarraian. 10:00 Korrika txikia eta ekitaldia. 20:00 Kantujira kalez kale. 21:30 Afaria eta musika Basteron. 01:00 Kalejira herrian barrena. 02:30 Korrika Andoainera iritsiko da. **Egun osoan zehar.**

ANDOAIN Erakusketa

"Emeek emana", 1936tik aurrera emakumeek izan zuten zeregin aktiboa 66 argazkitan jasotzen da. Arreseygor eta Lazkanoren zenbait argazki estenopeiko ere ikusgai egongo dira.
19:00, Bastero.

LARUNBATA 13

ANDOAIN Musika

Alerta Gorria, The Guilti Brigade eta Against You taldeak zuzenean.
22:30, Gaztetxea.

ANDOAIN Mozorro festa

Salkinen eskutik, sari eta guzti. **12:00-15:00 DJak Goikoplazan. 18:00-21:00 DJak Zumea plazan.**

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

La favorita

Lar, 6: 19:30, 22:00.
Ig, 7: 19:30.
Ast, 8: 19:30; 22:00.
El rey
Asteazk 10: 20:00.

El Gordo y el flaco

Apirilak 13, 14 eta 15.

URNIETA

SAROB

Smallfoot:

Igandea, 14: 17:00.



SINOPSIA



La favorita

Zuz.: Yorgos Lanthimos. **Herr.:** Britainia Handia (2018). **Generoa:** Drama, komedia. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Aktoreak:** Olivia Colman, Rachel Weisz, Emma Stone. **Iraupena:** 121 minutu.

Colmanek Oscar saria jaso zuen

XVIII. mendearen hasieran Britainia Handia Frantziarekin gerran zegoen. Anne (Olivia Colman) britainiarren erregina gaixorik, haren lagun Lady Sarah (Rachel Weisz) bilakatzen

da praktikan erabaki askoren hartzaile. Abigail izeneko zerbitzaria (Emma Stone) hasiko da lanean erret etxean, eta Lady Sarah harekin harrituta geratuko da.

ERAKUSKETA



Herria herri egin zuten Andoaingo emakumeak

Komisarioa: Itxaso Mendiluze. **Tokia:** Bastero, ekitaldi aretoa. **Elementuak:** Argazkiak. **Azken eguna:** Apirilak 6, larunbata. **Ordutegia:** Ohikoa. **Oharra:** Erakusketa atondu duen Itsaso Mendiluzek jakinarazi duenez, 18:00etatik 20:30etara Basteron bertan egongo da. Bide batez, Andoaingo emakume langileen inguruko argazki gehiago jasotzeko prest dagoela adierazi du.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Ariane
Apirilaren 10ean zure aurreneko urtea ospatuko dugu. Hain politta zara eta alaia. Muxu asko.



ANDOAIN
Nerea Irazu
Apirilaren 7an 13 urte beteko dituzu. Zorionak eta ondo pasa. Muxuak, etxeko guztien partetik.



ANDOAIN
Inge eta Unax
Apirilaren 10ean Ingek 4 urte beteko ditu eta apirilaren 21ean Unaxek 7. Zorionak eta muxu bana aitona-amonen partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus
webgunea
"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa ezazu. Urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunea. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ez, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus
Mezua eta argazkia bidali, herria zehaztuz.
Arantzibia 4-5, behea. Andoain
943 300 732.
Whatsappez:
619 16 35 37
Mezua eta argazkia bidali Aiurriko posta elektronikora herria zehaztuz.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 6 eta igandea 7
GOROSPE: Rikardo Arregi, 12. 943 592 415. Andoain.

URNIETA

Larunbata 6 eta igandea 7
ALDABE: Perkaiztegi, 8. Antziola. 943 336 022. Hernani.
GAUEZ: ALDABE. Hernani.



Urki dantza taldeak iaz 30. urteurrena ospatu zuen. AIURRI

Urki dantza taldearen emanaldia

Ostiral honetan Bastero Kulturgunean, iluntzeko 20:00tan hasita. Sarrera doakoa da

Erredakzioa ANDOAIN
Udaberriko emanaldia izango da, urtero antolatzen duen ekitaldi berezia. Urki osatzen duten dantzari eta irakasleak ilusio handiarekin prestatzen ari dira, senitartekoek, lagunek eta Andoingo dantza zaleek emanaldiarekin goza dezaten. Urtero bezala, euskal folklorako dantza saio ugari biziberrituko dituzte, Euskal Herriko herrialde guztietako dantzak eskainiz.

Bestalde, Urkik 2018ko urriaz geroztik egoitza berria dauka, Olagaingo musika eskolan, orain arte Andoingo Judo Klubak erabili izan duena. Eraberritze-ko obrak egin ostean, bertan egokitu da Urki taldearen egoitza. Urtarrilean helduen plaza dantzak ikastaroa abian jarri zuen Urkik, eta geroztik bi talde ari dira euskal dantzan trebatzen, Maite Sagaseta irakaslearen esanetara.



Udal musika bandako kideak. AIURRI

Andoain, Deba eta Legazpiko bandak zuzenean

Erredakzioa ANDOAIN
Larunbat honetan lehen musika banden topaketa egingo dute. Andoingo Udal musika eskola bandak bi banda gonbidatu ditu, lehen ediziora: Deba eta Legazpiko musika bandak.
Egun osoko egitaraua prestatu dute. Eguerdiko 12:30ean kontzertua eskainiko dute Bastero Kulturgunean. Eta arratsaldean ekitaldi bikoitza: 17:30ean kalejira kalez kale, eta 18:00tan 'Elkartasun Musik topagunea' izeneko emanaldia Zumea plazan.



Martxoaren 26an haurrak eta gurasoak dantzan aritu ziren. MINTZALAGUNAK

Dantza tailer arrakastatsua

Euskal dantzak haur eta gurasoentzat, Bidaide egitasmoaren laugarren jardueran

Mintzalagunak
Komunitatea / Andoain

Martxoaren 26an dantza tailerra izan genuen. 6 eta 10 urte bitartekoek plaza dantzak dantzatu zituzten, baita euren laguntzaileek ere. Espero baino jende gehiago hurbildu zen, eta bertaratutakoak giro ezin hobean aritu ziren.
Hirugarren urtez jarraian, dantza tailerra antolatu genuen. Andoingo Urki dantza taldeak

gidatu zuen saioa, eta esan daiteke arrakastatsua izan zela, espero baino jende gehiago bertaratatu baitzen. Bidaide egitasmoaren barruan antolatutako laugarren ekintza izan zen. Helburuetakoa haur zein helduak elkarrekin euskaraz jardutea da, ekintza entretenigarrien bitartez.
Harrera ikusita, eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Mila esker, beraz, guztioi!

Podcast topagunea

EuskalPod 2019 topagunea ospatuko dute Urnietan, bigarren urtez jarraian. Aurtengo edizioan zinema, telesailak, teknologia, komikiak eta umorea nagusituko dira. Denera, zazpi saio bertatik bertara ekoizten ikusteko aukera izango da. Jardunaldia apirilaren 13an izango da Lekaion, goizeko 11:00etan hasi eta iluntzeko 20:00ak arte.



GRAMOFONOA



Antolatzaileak posarren daude ekimenak izan zuten erantzunarekin. MINTZALAGUNAK

Korrika Urnietan

**Apirilak 5,
ostirala
POSTUA**

19:00 Zubitxo plaza.

Korrikako postuan
kamisetak, petoa eta arropa
salgai izango da.

Baita Korrika Laguntzailea
izateko aukera ere.
Afarirako txartelak erosteko
aukera paregabea.

**Apirilak 12,
ostirala**

11:30 Korrika txikia
eta ekitaldia.

19:00 Kantujira kalez kale.

21:00 Korrika afaria
Oianumen. Txartelak: 25 €.
Salgai: AEK, Kantoi,
Bikain, Oianume.

Erosteko azken eguna: Apirilak 9.



2019ko apirilaren 4tik 14ra
GARESTIK GASTEIZA



Korrika Andoainen

**Apirilak 4,
osteguna
PETO-POTEA**

18:30 Bastero.

19:00 Juanita Alkain.

19:30 Zubiaurre.

20:00 Ekitaldi Nagusia
Zumea plazan.

Korrikako peto zenbakituak
banatuko zaizkie Korrikan
lekukoa eramango dutenei.

**Apirilak 12,
ostirala**

10:00 Korrika txikia.

20:00 Kantu kalejira,
Zumea plazatik abiatuta.

21:30 Korrika afaria
Basteron. Txartelak: 15€.
Salgai: Andoaingo AEKn
eta Ernaitza liburu-dendan.

Erosteko azken eguna: Apirilak 7

02:03 Korrika Urnietan

Hernaniarren eskutik
jasoko dugu lekukoa
eta Andoaini eman



02:30 Korrika Andoainen

Urnietarren eskutik
jasoko dugu lekukoa
eta Adunari eman